



## TOPIC, GUZTION BEGIETAN

Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroko lanak ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte 5

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2009-09-11**

VILURTEA 1.773.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Galtzaundiren ekimenaren nondik norakoak azaldu zituzten atzo eginiko aurkezpenean. E. EZBIZA

## ESKUALDEKOEN ESKUTIK HAMAR KANTU BERRI

**TOLOSALDEA** Martxaundiren 5. diskoa aurkeztu zuten atzo; 10 taldek hartu dute parte; hilaren 18an zuzeneko aurkezpena egingo dute 3

## Eskualdea utzi eta etxerako bidean dira sahararrak

**TOLOSALDEA** Gurean bi hilabetez egon ondoren atzo agurtu zituzten haurrak eskualdeko familiek 2



Atzo eguerdian Bilbora joateko autobusa hartu zuten Tolosan. I. TERRADILLOS

## Azoka Berezia eta Isats Gisatuaren Lehiaketa, bihar

**VILLABONA** Irrintzi elkartearen eskutik, 30 postu izango dira Errebotte plazan 4

  
**TEUSA**



[teusa@teusa.com](mailto:teusa@teusa.com)

[www.teusa.com](http://www.teusa.com)

FATXADA ETA ESTALKIEN KONPONKETA  
ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK

Tel.: 943 401 340

Bi hilabete eskualdean igaro eta gero, atzo izan zuten saharar gaztetxoek agur esateko eguna; pozik zeuden etxera itzuliko direlako, baina, triste, aldi berean, atzean uzten dutenarengatik.

## Datorren urtera arte

**INIGO TERRADILLOS**

**S**entimendu kontrajarriak zituzten atzokoan, uda gure artean igaro duten gazte sahararrek. Euren etxeetan hartu dituzten familiei agur esateko eguna zen, baina, aldi berean, euren etxeetara itzultzekoa. Beraz, pozik zeuden, saharar kanpalekuetara iristeko gogoz zeudelako, baina, tristura ere nabari zen euren artean, datorren urtera arte ez direlako berriro ere eskualdean izango.

Tristura ere, noski, Tolosaldeko familien artean. Etxeko kide bezala izan dituzte bi hilabetez, eta ziur euren hutsunea nabaritu dutela aurrerantzean. Hala, negar artean agur esan ostean, autobusera igo ziren gaztetxoak, eta Bilborako bidean jarri ziren, han hegazkina hartu, eta hainbat orduren buruan Aljeriako Tinduf hiriarren ondoan dauden kanpalekuetara iristeko. Euren familiak irrikaz egongo ziren itxaroten, txikien egonaldiaz guztia jakiteko gogoz.

### Errepikatzeko esperientzia

15 neska-mutil izan dira aurten eskualdean uda igarotzen. Euren etxeetan izan dituzten familietako gehienak errepikatzaileak ziren, baina horietako batzuk estreinako aldiz izan dute haur saharar bat etxean hartzeko esperientzia. Bi hilabeteren ostean, «errepikatze gogoz» daudela eta «oso esperientzia aberasgarria» izan dela azaldu dute.

Baina, ez hori bakarrik, saharar kanpalekuetara joateko gogoa ere piztu zaie hainbati, «gaztetxoaren familia ezagutu ahal izateko eta bertako egoera gertutik ikusteko». Horretarako aukera izango dute urtero urtero abenduan edota Aste Santuan antolatzen duten bidaietan.



Gaztetxoak autobusera igo aurretik azken argazkia egiten. I.T.

### Ekintzez beteriko uda

Hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izan dute uda osoan zehar; Aquariumean izan dira, suhiltzaileetan, hainbat herritako jaietan jolastu dute, eskalada egin dute, antzerkia ikusi dute, itsasontzian ibili dira, grafitiak egin dituzte... eta amaitzeko Saharar Festa ere izan dute Tolosan, «parte-hartze handiarekin; gaztetxoek ederki igaro zuten arratsaldean jolasten, eta ondoren, gazte nahiz heldu, giro polita sortu zen afarian nahiz saharar taldearen kontzertuan».

Hemengo egonaldia bukatu zaie, ordea, eta itzuli dira. Pozik, hura dutelako bere, eta han dutelako familia eta lagunak. Hangoak, baina, bere horretan jarraitzen du, irtenbiderik eman nahi ez zaion gordintasun amaigabearen.



Euren etxeetan hartu dituzten familia agurtzerako unean. I.T.



Santa Maria kapera. HITZA

## Izaskungo Andre Mariaren jaia ospatuko dute bihar eta etzi

**Erljioa** » Santa Maria parrokian izango da bihar meza, eta Izaskungo ermitan, etzi, 11:00etan hasita.

### ERREDAKZIOA

Iraileko bigarren igandez egin ohi duten bezala, Izaskungo Andre Mariaren jaia ospatuko dute, Izaskungo santutegian eta Santa Maria parrokian.

Santa Maria parrokian bihar 19:00etan meza izango da, eta bertan Felipe Gorritiren salbea eta Izaskungo Birjinaren ereserkia abestuko dute.

Etzi, berriz, Izaskungo ermitan izango da meza 11:00etan hasita, eta bertan Ander Letamendiak zuzentzen duen Santa Mariako kapera ondorengo obrak abestuko ditu: Izaskungo Birjinaren ereserkia, *Erruki jauna*, Meza Pastoralaren Santusa, *Gurtu dezagun Jesus* eta Gregorio Danborenearen Izaskungo Birjinaren zortzikoa.

Hain zuzen ere, gaur betetzen dira 60 urte Izaskungo Ama Birjinaren irudia koroatu zutenetik.

## H Hilberria

### RAMON EZKURDIA IRIZAR

Atzo hil zen, 93 urte zituela

Aitte, aitona:  
Hemendik aurrerako  
bidaian ere  
zu gidari.



Hileta elizkizuna GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN egingo da ANDER DEUNAREN parroki elizan.

**ORMAIZTEGI**  
2009ko  
irailaren 11

Oharra: gorpua Beasaingo Goierrri Beilatokian egongo da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 • 20400 TOLOSA  
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719  
WWW.FUNERARIAVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Hamar kantu berrirekin, ailegatu da Martxaundiren bosgarren lana

**Kultura** » Eskualdeko hamar taldek hartu dute parte Galtzaundiren proiektuan; hilaren 18an, zuzeneko aurkezpena.

## ESTI EZEIZA

Hemen da Martxaundiren bosgarren diskoa. Eskualdeko hamar talderen abestiak biltzen ditu argitalpenak, eta datorren astearen amaieran jarriko da salgai.

Euskararen normalizazioaren alde lan egiten duen Galtzaundi euskara taldearen ekimena da Martxaundi. 90eko hamarkadan eman zion hasiera proiektuari, eta orain, bere bosgarren alea plazaratu du. Musikaren esparruan tarte bat egiten ari diren ondorengo taldeek hartu dute parte orainoan: Nekro, Zesuma, Inde Kitxen, Kantaflo, Kräken, Potentor, Laket, Inside, Gargantas desgarradas eta Caligula.

Duela bost hilabete, eskualdeko musikazale hasiberri guztiei dei egin zien Jon Ander Ubedak eta Juantxo Zeberioi proiektuan parte hartzeko. Hala, hamar taldek erantzun zien deialdiari eta denen artean, estilo ezberdinez osatutako disko borobil bat egitea lortu dute. Atzo aurkeztu zuten diskoa Tolosako Kultur Etxean, Jon Ander Ubeda Galtzaundiko ordezkariak; Ander Malbadi Zesuma taldeko kideak, eta Xabier Valverde Potentorrekoak.

Atzokoan, diskoan parte hartu



Atzo aurkeztu zuten Martxaundiren bosgarren alea, Galtzaundiko eta parte hartu duten taldeetako ordezkariak. E.E.

duten taldeetako ordezkariak nabarmendu zuten ezaugarrietako bat izan zen grabazioarena. Ander Malbadiren hitzetan, «esperientzia berri bat izan da grabazio estudio batean sartzea, eta oso aberasgarria izan da kantu baten prozesu guztia nolako den ikustea».

Udan egin dituzte grabazio lanak, Bonbereneako estudioetan, Karlos Osinaga Txap teknikariarekin. Hamar egunetan egin dituzte estudiokoak. Talde bakoitzari egun bat eskainiz.

Trikiti doinuak, metal gogorra, rock zipriztin batzuk eta gehiago uztaizten ditu 2009ko Martxaundik. Ubedaren hitzetan, «aurreko-

etan, bakarlarik nahiz perkusio taldeak izan badira ere, aurtentelako taldeak dira nagusi».

## Musikari berrientzat abiapuntu

Euskal musikagintzari eta eskualdeko musikari hasiberriei laguntzeko asmoz sortu zen Martxaundi duela 20 urte inguru eta atsedetik gabe, aurrera jarraitu du. Martxaundik, lau urtetik behin ikusten du argia.

Martxaundin parte hartzeko zenbait baldintza bete behar dituzte taldeek. Horien artean dueda, euskaraz abesteara, eta aurretik, diskoetxeren batekin kon-

traturik ez izatea. Halaber, bosgarren honetarako izena eman zuten talde guztiek betetzen zituzten baldintzak eta Galtzaundikoek ez dute inolako aukeraketarik egin behar izan. Honela argitu zuten Jon Ander Ubedak, azalduz, talderik ez delageratu kanpoan.

## Diskoaren atzetik etorriko direnak

Diskoak datorren astean, hilaren 18an ikusiko du gutxi gorabehera argia. Hau, Tolosako disko dendentan eta hainbat tabernatan eskuratu ahal izango da.

Egun horretan bertan, zuzeneko aurkeztuko dute argitalpena.

## » MARTXAUNDIN PARTE HARTU DUTEN TALDEAK

- **Nekro.** Espazioko hautsa.
- **Zesuma.** Baiona.
- **Inde Kitxen.** Teroriaren kaosa.
- **Kantaflo.** Zakatan.
- **Kräken.** Azken agurra.
- **Potentor.** Hemen gaude.
- **Laket.** Azken agurra.
- **Inside.** Etsipen erdoilduak.
- **Gargantas desgarradas.** Non nahi zaudela.
- **Caligula.** 400 edo 500 gau.

## Aurkezpen kontzertua

■ **Urriak 18.** Triangulon aurkeztuko dute diskoa zuzenean, 23:00etatik aurrera. Hamar taldeak bertan izango dira.

Honenbestez, eskualdeko hamar taldeak Trianguloko eszenatoki gainean ikusteko aukera izango da. Asteburu horretan bertan, Garagardo Festa ospatuko da Tolosan, eta honen baitan antolatutako ekitaldiekin lotu nahi izan dute kontzertua. Hala ere, hau aurkezpen kontzertua besterik ez da izango, aurrera begira, zuzeneko gehiago eskaintzeko asmoa dute antolatzaileek: «Oraindik, egutegia zehazteke badugu ere, kontzertu gehiago eskainiko ditugu». Xabier Valverde esan bezala, «zaila izango da eszenatoki bere-tik, gau bakar batean hamar talde igarotzea, baina ahaleginduko gara, eta kontzertu polita izango da».

Jon Ander Ubedak aipamen berezi bat egin nahi izan zien atzoko aurkezpeneari, eta bide batez eskerrak eman, diskoan parte hartu duten taldeei, eta Tolosako Udaleko kultura sailari, emandako laguntzarengatik.

## Biurrunek hartu du lehendakari kargua

**Zuzenbidea** » EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko gizarte gaietako lehendakari zuten tolosarrarena da atzotik.

## ERREDAKZIOA

Garbiñe Biurrunek, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko gizarte gaietako lehendakari berriak, atzo hartu zuen kargua. Bertan adierazi zuen konpromisoa hartzen duela «herritar ororen bakea eta askatasuna lortzeko». Hala nola, justiziaren kudeaketan, euskararen normalizazioaren alde lan egingo duela nabarmendu zuen.

Bilboko Justizia Jauregian izan zen atzo kargu hartzea. Biurrunek zion egite ekitaldia euskaraz egin zuen, eta ondoren hitz batzuk esan zituen atzo bertan zendu zen Ja-

vier Caño Eusko Jaurlaritzako aholkulari ohia gogora ekarri.

Gizarte gaietako lehendakariak agertu zuen ere, prozesuen ebazpen maila altuarekin jarraitzen ahalginduko dela, baita, amaitzeko dauden gaien tasa baxua ere. Gaineratu zuen, krisia dela eta, juridikzio honetara gero eta kasu gehiago iristen direla.

Tolosarraren hitzetan, «bizi dugun egoera ekonomikoan, politika publikoaren ardatz izan behar dute lan munduak eta langileak». Gaineratu zuen ere, erabaki ekonomikoek, eta konstituzioak ematen duen lanerako eskubideak, uko egin ezin zaion helburu bat izaten jarraitu behar duela. Atzokoan, aipamen bat egin nahi izan zien baita, ETAK hildako magistratuak. Honekin batera, milaka euskaldunek terrorismoa bizi izan zuten askatasun eza salatu zuten.

## Azaroan epaitu nahi dituzte

**'Egunkaria auzia'** » Egiteko dauden tramiteak irailan amaitu ondoren jarriko du Auzitegi Nagusiko epaimahaiak epaiketarako eguna.

## ERREDAKZIOA

*Egunkaria* auziko epaiketa azaroaren hasieran egitea aurreikusitako Espainiako Auzitegi Nazionalak, iturri juridikoen arabera. Dena den, ez auzipetuek ez auzipetuen abokatuek ez dute oraindik inolako jakinarazpenik jaso.

## Iragarki laburrak

## SALGAI

■ **Granja.** Granja salgai Berrobin. 1.600 m<sup>2</sup>. Harremanetarako telefono zenbakia: 652 75 33 92.

Uztailaren 30ean, auzia behin betiko itxteko eskaerari uko egin zion Auzitegi Nazionalak. Harrezkerotik tramite bat falta da epaiketa bidean: auzipetuen abokatuek defentsa idatzia aurkeztea. Horretarako epea irailaren amaieran amaituko da. Tramite hori egin ondoren zehaztuko du epaima-

haiak epaiketako egutegia. Aurreikusitakoaren arabera, *Egunkaria* auziko epaiketa azaroaren hasieran hasiko da. Horren arabera, *Udalbiltza* auziko epaiketa ez da aurretik izango, ondoren baizik.

*Egunkaria* auziko sumario nagusian bost lagun epaituko dituzte, tartean, Martxeló Otamendi.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



laz egindako Elikagaien Azoka Bereziaren irudia. N. LATABURU

# Irrintzik Azoka Berezia eta Isats Gisatuaren Lehiaketa antolatu ditu biharko

**Villabona** » Elikagaien Azoka Berezian 30 postu inguru izango dira Errebote plazan, 09:30etik 13:30era, 14. aldiz. Eta azokarekin batera elkarteen arteko Isats Gisatuaren Lehiaketa ere egingo dute. 15. aldia izango du honek. Esan daiteke ohitura bilakatu direla iraileko bi ekitaldi hauek. Imanol Rodriguez Irrintzi-ko lehendakariak azaltzen duenez, «jendea zain egoten da azoka noiz izango den. Bakoitzak produktu jakin batzuk erosten ditu urtero azokan».

IMANOL GARCIA

Irrintzi elkarteak antolatzen duen Elikagaien Azoka Berezian bihar irekiko ditu postuak Errebote plazan, 09:30etik 13:30era, 14. aldiz. Eta azokarekin batera elkarteen arteko Isats Gisatuaren Lehiaketa ere egingo dute. 15. aldia izango du honek. Esan daiteke ohitura bilakatu direla iraileko bi ekitaldi hauek. Imanol Rodriguez Irrintzi-ko lehendakariak azaltzen duenez, «jendea zain egoten da azoka noiz izango den. Bakoitzak produktu jakin batzuk erosten ditu urtero azokan».

Aurten ere azoka berezian 30 postu inguru izango dira. Bertan, produktu mota asko eskuratu ahaliko dira: ogia, ardoa, esnekiak, gozoak, kontserbak, barazkiak, ez-tia... Postu onenaren sariak banatuko dira, hiru lehenengoei. Villabonako Udalak jartzen du dirua eta bertatik zein Irrintzi elkartetik osatutako epaimahaia hartuko du erabakia.

Isats Gisatu Lehiaketa ere bihar egingo dute. Amasa-Villabonako, Asteasuko eta Zizurkilgo sei elkartetek parte hartuko dute. Aurtengoa Behar-Zana elkartearen egingo da, Irrintziaren egoitza obretan baitago. Epaimahaia herriko zenbait jateetako sukaldariek eta Hutsunea Betez emakumeen elkarteko bi kidek osatuko dute.

Behar-Zanan egingo da ere egun horretan ohikoa den bazkaria. Bertan izaten dira azokan pos-

tua jartzen dutenak eta Isats Gisatuaren Lehiaketan parte hartzen duten elkarteko kideak. Hain justu, plater nagusia isats gisatua izaten da.

### Lokala obretan

Sutea izan ondoren, Irrintzi elkarteko ezin izan zuten beraien egoitza erabili eta Behar-Zana elkartearen egoitza erabili behar izan dute. Dagoneko obrak hasi dira Irrintziaren lokalean eta espero dute Eguberrietarako berriro irekita egotea.

Hilabete honetan Irrintzi-koek urteurrena ospatzen dute eta Azoka Bereziaz eta Isats Gisatuaren Lehiaketaz gain, afaria egingen dute bazkideek. Hilaren 19an izango da eta Behar-Zanaren egoitza berriaren inaugurazioarekin bat egingen duenez, taberna batean elkartuko dira.



Herritar batzuk abuztuaren egindako auzolanean. HITZA

# Goibailarako bi aska konponduko dituzte bihar auzolanean

### ERREDAKZIOA

Anoetako Udal Ingurumenak eta Agenda 21eko Batzordeak bihar antolatu duten auzolan ekimen berriari parte hartzeri animatu nahi ditu herritarrek. Oraingo honetan Goibailaran kokatuak dauden bi aska konpontzea izango da helburu nagusia. Horretarako, bihar, 09:30ean elkartuko dira Bideondo baserrian.

Azkeneko auzolan ekimena

abuztuaren 18 eta 19an egin zuten.

Udal Ingurumen eta Agenda 21eko Batzordeak herritar talde baten laguntzarekin antolatu zuten. 13 lagun inguru aritu ziren herriko ubideak konpontzen, mendi bideak garbitzen eta hainbat zonaldeko sasia mozten.

Bide batez, Udalak herritarren partaidetza eskertu du eta antolatu diren auzolan deialdietan parte hartzeri animatzen ditu.



# Piratek Zizurkil hartu dute

**ZIZURKIL** » Elbarrenako jaietan ohitura denez, Pirritx eta Porrotx pailazoan eta bere lagunen emanaldiak (atzo Pirritx falta bazen ere) sekulako arrakasta izan zuten. Herrikoak ez ezik inguruko herrietatik ere joan ziren Zizurkilera. Plaza goraino beteta zegoen eta haurrek gustura jarraitu zituzten pailazoan jardunak. Gaur ere hainbat ekitaldi izango dira festetan, tartean gazteen bazkaria. I. GARCIA

### NOIZ ETA NOLA AURKEZTU

Lehen irailaren 11an, bigarrena irailaren 18an eta hirugarrena irailaren 25ean. Orduak: 10:00etatik 14:00etara. Gaitzandiaren 11. Ibarra Galtza Komiki Lehiaketa. 2009ko irailaren 11, 18 eta 25. Gaitzandiaren 11. Ibarra Galtza Komiki Lehiaketa. 2009ko irailaren 11, 18 eta 25.

### MODALITATEAK ETA HIZKUNTZA

Lehiaketa hiru modalitateetan egingo da: irailaren 11, 18 eta 25. Hizkuntza: euzkera. Lehiaketa hiru modalitateetan egingo da: irailaren 11, 18 eta 25. Hizkuntza: euzkera. Lehiaketa hiru modalitateetan egingo da: irailaren 11, 18 eta 25. Hizkuntza: euzkera.

### SARI BANIAKETA

Lehiaketa hiru modalitateetan egingo da: irailaren 11, 18 eta 25. Sari baniaketa. Lehiaketa hiru modalitateetan egingo da: irailaren 11, 18 eta 25. Sari baniaketa. Lehiaketa hiru modalitateetan egingo da: irailaren 11, 18 eta 25. Sari baniaketa.

**Tolosa** » Iraileko azken bi asteburuetan eta urriko lehen bietan dago horretarako aukera; izena aurretik eman behar da.

**ERREDAKZIOA**

Irailaren 19ko eta 26ko eta urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan, Tolosako biztanleek, «hala nahi izanez gero», Tolosako Txotxongiloaren Nazioarteko Zentroa, Topic, izango denaren lanak gertutik ikusteko aukera zabaldu dute Udaletik. Interesa dutenek aurrez izena eman beharko dute; bisitak 12:00etatik 18:00etara bitarte burutuko dituzte euskaraz eta gaztelaniaz.

Topic zentroa, besteak beste, «zentro bizia izateko eta biztanleengandik gertu egoteko helburuarekin» sortu zen, arduradunen hitzetan. Hori dela eta, abiarazi diren lehenengo ekimenetako bat zentroa ofizialki inauguratu baino lehen jendearentzat zabalzea izan da.

**Txotxongiloaren etxean, azken ukituak**

Eraikina egiteko lanak azken fasean dira jada eta, nahiz eta erabat amaituta ez dauden, dagoeneko bisitak egin daitezke, horien bidez, eraikineko gune ezberdinak eta Topic zentroan etorkizunean gauzatuko diren jarduerak eta proiektu anitzak ezagutzeko. Honen bidez, funtsean, bisitariak erakutsi nahi diete eraldaketa sakona izan dela Tolosako Euskal Herria plazan dagoen eta Topic zentroaren egoitza izango den Justizia Jauregiaren fatxadan. Gune horietan azken ukituak egiten ari dira jada «txotxongiloaren munduko magia guztia bere baitan bildu ahal izateko erabat prest egon aurretik».

Bisita hauek biztanle guztiak egin ditzakete. Leku eta antolaketa arazorik ez izateko, ordea, izena ematea eskatu dute. Hori, Tolosako Ekinbide Zentroarekin jarrita egin daiteke, 943 65 04 14 telefono-

# Topic zentroko lanak ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte



Topic zentroko itxura, pasa den ekainean. E. EZEIZA

ra deituta (09:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 19:00etara) edo, bestela, helbide elektroniko honetara idatzita: [topic@cittolosa.com](mailto:topic@cittolosa.com). Eskaeerei iritsi ahal erantzungo diete.

**Topic zentroko boluntarioen bila**

Herritarrei zuzenduriko bisita gidatuek gain, Topic proiektu «irekia eta parte-hartzailea» izan dadila lortzeko, «boluntariotza proiektua» ere bultzatzen ari dira, zentroko hainbat jardueretara zabaldu nahi dutena, gainera. Aurki abiaraziko dute ekimena,

**Bisitak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira; «herritarrengandik gertu egotea» da helburua**

Topic zentroa zabalteko ekitaldien harira. Parte hartu nahi duten guztiak Topicen web orrian (<http://www.topicolosa.com/es/sobre-nosotros/trabaja-con-nosotros.html>) aurkituko duten galdera-sorta bete behar dute edo, bes-

**» BISITA GIDATUAK**

- **Noiz.** Irailaren 19ko eta 26ko eta urriaren 3ko eta 10eko asteburuak.
- **Ordutegia.** 12:00etatik 18:00etara.
- **Izen-ematea.** TEEn, (943 65 04 14 telefonoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) edo [topic@cittolosa.com](mailto:topic@cittolosa.com).

tela, informazioa eska dezakete, Tolosako Ekinbide Etxearekin harremanetan jarrita (943 65 04 14 zenbakian).

**Elkarlana helburu**

Biztanleek «Topic zentroarekin modu aktiboan elkarlanean aritzea» bultzatu nahi dute. Hala, Topic-en web orrian ere ([www.topicolosa.com](http://www.topicolosa.com)) gune zehatz bat gorde dute aisialdirik duten eta Topic zentroan burutu beharreko jarduerak anitzetarako euren gaitasunak eta ezagutzak eskaini nahi dituzten «16 eta 100 urte bitartekoek egiten dituzten eskaerak jasotzeko».

Deialdia hau «txotxongiloazale guztiri» zuzenduta dago bereziki, baina ez haie bakarrik. Topic zentroan «boluntario gisa aritzea erakargarria» izan daitekeela diote arduradunek, batik bat «arte gustuko duten pertsonentzat, jaialdiak antolatzen ibiltzen direnentzat edo, besterik gabe, beti egin ohi dutena ez den beste jardueraren bat egin nahi dutenentzat».

## Artisau, barazki eta abereen azoka antolatu dute estreinakoz

**Leaburu-Txarama** » Urriaren 11rako antolatu du Larte Azpi ekintza taldeak; hilaren 15era arte eman daiteke izena.

**ERREDAKZIOA**

Lehen aldiz artisau, barazki eta abereen azoka antolatu dute herrian. Larte Azpi ekintza taldea ari da antolaketa lanetan eta urriaren 11rako, idandarekin, aurreikusitako festa.

Taldetik bertatik azaldu dute-nez, oraindik ere nahi duenak parte har dezake azokan; horretarako izena eman beharko du hilaren 15a baino lehen, asteartea. Bi bide zabaldu dituzte; batetik, antolakuntza dabilzan kideen telefono zenbakira deituz (Ion: 616 849 722 edota Eli: 696 014 786); bestetik, asteartean Leaburu-ko gazte gelan egingo dituzten bilertetara azalduz, 20:30etik aurrera.

«Guztien parte-hartzea ziurtatu nahi dugu eta horregatik guztiak dei egiten diegu parte hartzeko; barazkiak, abereak, artisau tresnak dituztenak...» azaldu dute.

## Laburrak

**Zartagi jatetxeak gaur irekiko ditu bere ateak**

**BALIARRAIN** » Itxialdiaren ostean, Zartagi jatetxe/ostatuak gaur irekiko ditu berriro ateak. Udalak lehiaketara atera zuen eta adjudikazio berri bat egin du. Aurrerantzean Dori Martinez izango da arduraduna. Ohi bezala, bazkariak eta afariak emango dituzte bertan; horretaz gain ostatu funtzioa ere betetzen du Zartagik.

**La Jara elkarteak Kultur Astea aurrera doa**

**TOLOSA** » La Jara Extremadurako elkarte bere Kultur Astea ospatzen ari da. Gaurko ere egitaraua presatatu dute: Halab, 19:00etan Miguel Angel Manjon sendagile naturalistaren hitzaldia izango da eta 21:30ean afaria Flor de Jara abesbatzarekin; ondoren poesia erreztaldia Errenterriko Extremadurako Zentroko Gregorioren eskutik.

Etxerat

**BIHAR**

DAGOZKIEN ESKUBIDEEN JABE

# Euskal Presoak Euskal Herrira

# MANIFESTAZIO NAZIONALA

Irailaren 12an 17:30etan Antiguako (Donostia) tuneletik



## 'Goenkale'-ren 16. denboraldia prest

**LEITZA** • Atzo aurkeztu zuten *Goenkale* telesailaren 16. denboraldia Leitzako Peru-Harri Museoa. Irailaren 14tik aurrera ikusgai izango dira atal berriak. Aurpegi ezagunekin batera berriak ere izango dira eta horien artean, Xabier Perurena leitzar gaztea izango da. Uztailean airean geratutako galderek erantzuna izango dute eta aurtegoan gazteen

tramak nabarmenduko dira *Goenkale*n. Estatu osoko telesail zaharrena den honetatik, 400dik gora aktore eta pertsona ezagun pasa da. Lan taldea berriz 120 lagun inguruk osatzen dute eta urtarrilean 3000. kapitulura iritsiko dira. Hitzordua, ohi bezala, astelehen eta asteartetan, gaueko 22:00etatik aurrera izango da. **E.MAIZ**

### Kalebeherako jaiei gaur iluntzean emango diete hasiera

**Alegia** » Kalejira, patata tortila lehiaketa, zahagiardoa eta trikiti doinuak izango dira festen lehen egunean.

#### ERREDAKZIOA

Urtero legez, alegiarrekatejoka dituzte Kalebeherako jaiak. Gaur iluntzean hasi eta asteburu guztian zehar jai giroaz gozatzeko aukera izango dute kalean gora eta beheara. Gaur iluntzean, kalejirarekin emango diete hasiera eta ondoren, urterokoa den zita izango dute patata tortila lehiaketan. Alegian falta ezin den zahagiardoa, tripa betetzeko aukera izango dute. Bapojan eta edan ostean, trikiti doinuak izango dira entzungai Kalebeheran eta jai goizalderate luzatzeko aukera izango dute bertaritzen direnek.

## Bazkide eta futbolari bila Intxurre Futbol Taldea

**Alegia** » Jada Intxurrekoek ate joka dute denboraldi berria. Iraila hasieratik, egunero entrenatzen ari dira futbolariak.

#### ERREDAKZIOA

Alegiako Intxurre Futbol Taldea 2009-2010 denboraldia prestatzen hasia dago. Taldeetik esan bezala, «iraila hasieratik, egunero-egunero entrenamenduak egiten ari dira futbolariak».

Abuztuko azken asteburuan, Nafarroako Villatuerta herrian izan ziren Intxurreko futbolariak hiruko eran jokatzeko. Villatuertako Ondalan taldea eta Leringo Leringo taldeen aurka aritu ziren. Maila «txukuna» eman zuten gipuzkoarrek nafarren aurrean eta denboraldi berriari ekiteko «itxaropentsu» itzuli ziren etxera.



Intxurreko jokalariek, 2009/2010 denboraldirako prest. **HITZA**

### Atezain eta futbolari faltan

Aurten ere, beste urte batez, hiru talde izango ditu Intxurre Futbol Taldeak. Bat, lurraldekako mailakoa izango da, jubenil mailakoa bestea eta azkena kadeteen mailakoa. Hauetaz aparte, eskola mailako beste bi talde daude herrian, talde bat mutilena eta bestea neskenak dira.

Nahiz eta denboraldia prestatzen hasi eta entrenamenduarekin «serio» aritu taldeak osatu gabe daude. Horregatik, Intxurre Futbol Taldeetik deia luzatzen diete futboleko jokatu nahi duten guztiei.

Lurraldekako mailan, atezain baten bila dabilzala adierazi dute eta behar-beharrezkoa dutela gaineratu dute. Atezainaz gain, jokalariren bat edo beste ere gustura hartuko lukete. Jubenil mailako

taldean berriz, talde «polit» dute, hau da, «nahiko osatua». Kadete mailako taldea ere «eskas» dabilena adierazi dute, eta jokalar berriak nahiko lituzkeela. Beraz, lurraldekako mailan eta kadeteetan inork jokatu nahiko balu, Alegiako Intxurre Taldean atek irekita lituzke. Beraiekin harremanetan jarri besterik ez da egin beharko horretarako.

Kadete mailakoek denboraldia irailaren 20an hasiko dute eta lurraldekako mailan eta jubenil mailan, aste bete beranduago hasiko dira, hilaren 27an.

### Bazkide, 10 euroren truke

Intxurre Futbol Taldea, denboraldi berriarekin batera, bazkide berrien bila dabil. Hala, 10 euroren truke edonor egin daiteke Intxurre taldeko bazkide.

## Hirigintza eta kulturako batzordeetan parte hartzeko deia herritarrei

**Amezketaketa** » Irailaren 14an eta 15ean iluntzeko 20:30ean izango dira Amezketako Udaletxeko Pleno Aretuan.

#### ERREDAKZIOA

Hirigintza eta obra batzordea eta Kultura, gizarte ongizate eta ingurumen batzordeen bilerak egingo ditu Amezketako Udalak.

### Hirigintza-obra batzordea

Irailaren 14an, aztertu eta eztabaidatzeko gai asko izango dira: obra txikiak, hirigintza kontsultak eta informazioa, zenbait obra baimen eta eskaera, espaloien proiektua, Etorlurrekin hitzarmena, Arau subsidiarioen aldatetaren hasierako onarpena eta Ola auzoko arau aldatetaren alegazioa.

### Kultura, gizarte ongizate eta ingurumen batzordea

Irailak 15, asteartean, 2009ko festetako balorazioarekin hasiko dira. Ondoren, kultur astea, anagrama lehiaketa, ikastaroak eta jubilatuen ibilaldiak eta hitzaldiak izango dira hizketagai.

## Kaleko lanak amaituta autobus geltokia berriro ere plazan izango da

**Amezketaketa** » Autobus zerbitzua arazorik gabe ibili dadin, herritarrei autoa ongi aparkatzeko eskatzen diete.

#### ERREDAKZIOA

Kaleko obrak amaitu ondoren autobus geltokia plazan izango da, ibilgailuak aparkatzeko gunea da goen ondoan.

### Ongi aparkatu autoak

Bartolome Deunaren Kalea norabide bakarrekoa dela kontuan izanda, goranzko norabidean egingo du geldidunea autobusak, bai autobusera igotzeko bai jaisteko orduan. Goitik behera saihesbidetik joango da eta ez da plazan geratuko. Goitik beherako norabidean berriz, autobusa Auzoetxea ondoko geltokian hartu ahal izango da, Amezta ondoko zubitik barrura sartuko delako.

Herritarrei gogorarazten diete, herriguneari barrena autobusa arazorik gabe ibili dadin, espalo gainetan eta errepidean ibilgailurik ez aparkatzeko.

Tolosaldeko komunikazio talde batek  
**Kazetaritza edota Euskal Filologian lizentziatuak**  
edo ikasleak behar ditu.

Interesatuak deitu  
**661 678 817** telefonora





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** La Jaran: 19:00etan Miguel Angel Manjon sendagile naturistaren hitzaldia, 21:30ean afaria Flor de Jara abesbatzarekin eta ondoren poesia errezitaldia Errenteriako Extremadurako Zentrok Gregoriorioren eskutik.  
■ **Villabona.** Irrintzik bere XXVIII. urteurrena ospatzeko bazkaria egingo du Ongi Etorri jatetxean (Zaku) hilaren 19an. Izen-ematea, jatetxean.

### Kirola

■ **Tolosa.** Proba ezazu zuk zerorrek lelopean, Udalak emakumeei zuzendutako lasterketa entrenamendu ikastaroa antolatdu du. Izen-ematea, Usabalen.

### Musika

■ **Tolosa.** Peio eta Pantxoaren Peio eta Pantxo 40 urtez kontzertua Leidor aretoan 22:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Julen eta Haritz Kuban izan dira uda honetan, beste euskaldun askok egiten duten bezalaxe; joan zaren lekura joan zarela, bidali zure udako argazkia gure lehiaketara! Sari interesgarriak irabaz ditzakezu!

# 'Zein polita den Kuba'



**KUBA** • Julenek Kuba aldean izan da udan eta argazki hau bidali du argazki lehiaketarako. Argazkiarekin batera hau ere kontatu digu: «Kuban ere topatu genituen euskaldun pila bolaraz Hernani zirudien. Mendian topatu genuen kaskada hau izugarri hau!» JULEN AMASA

**KUBA** • Herrialde bat ezagutzen duzunean bertako jendearen bizimodua aztertzea beharrezkoa da. Haritzek ere bertako jendearen nondik norakoak ezagutu zituen, argazki honetan ikus daitekeen bezala: «Kubako bidai zoragarri hontan nekazari langile bezain jator batzuekin egin genuen topo ta ikustezuen ez daukate gure tratorerik». HARITZ SAEZ



bidali opor  
hauetako  
argazkiak!



sari  
mundialak



**NORA BIDALI?**

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo  
HITZAren Tolosako edo Leizako egoitzetara

HITZA udako argazki lehiaketa



sarrerak

## saridunak

### Peio ta Pantxo

«40 URTEZ GUREKIN KANTUZ»  
(Zuzeneko grabaketa)

Irailak 11 • Ostirala  
22:00etan • Tolosako Leidorren

- Sagrario Lasarte (Leitza)
- Martin Armendariz (Berastegi)
- Yolanda Etxeberria (Larraul)
- Gregorio Begiristain (Tolosa)

sarrerak leihatilan bertan izango dituzte

